



JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' bere omenaldia iragartzen duen afixarekin. JON URBE/ARGAZKI-PRES

BORROKAREN SARIA

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZAK 'EUSKARAREN ALDEKO BORROKAN' LIBURUA OSATU DU BERE OMENALDIAREN ATARIAN; EUSKARAREN INGURUAN IDATZITAKO ARTIKULUAK BILDU DITU

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

«Beti hildakoak omentzen ditugu; gero ohartzten gara zeinen onak ziren». Jose Luis Alvarez Enparantzak, ordea, orain «bizkortuta, lanerako gogoz, ilusioz, sasoiko eta langile» dagoen honetan jasoko du omenaldia, Xabier Mendiguren Elizegik bultzatu eta Elkar argitaletxeak antolatzen ditu, editoreak jakinarazi duenez. «Gauza xume eta apal bat» egin nahi diote, bere ibilbidea gogorarazi eta ezagutarazteko.

Datorren asteartetik ostegunera, hiru hitzaldiren bitartez, Txillardegiren literatur ibilbidea, politikoa eta hizkuntza gaietako emana landuko dituzte hitzaldi-omenaldietan.

Liburu batekin iritsi da Txillardegiri bere omenaldira: *Euskararen aldeko borrokan*. Euskalgin-

tza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983 izenekoarekin. Han-hemenka oso sakabanatuak dauden artikuluak bildu ditu, batzuk Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian plazaratuak, beste zenbait *Branka* aldizkari klandestinoan emanak izan ziren. Guztira 15 artikulua bildu ditu, «euskararen aldeko borrokan balio zuzena» izan dutenak, egilearen beraren hitzetan. Literaturaren, Filosofiaren edo Zientziaren ingurukoak baztertu egin ditu ale honetan. Hamabost horietatik bi frantsesez daude eta beste bat, gaztelaniaz.

Pruden Gartzia Euskaltzaindiko liburuzainak duela gutxi osatu du Txillardegiren bibliografia osoa; horietako askok «bere garaietan izan zuten garrantzi historikoak kanpo kalitatea dute eta irakurmina eta interesa sortzeko

mamia eta funtsa dute», eta horregatik kaleratu ditu Elkar argitaletxeak, Xabier Mendigurenen arabera.

Gaurko egoera atzokoaren ondorio delako, euskararen inguruan, batez ere 60ko eta 70eko hamarkadetan, zegoen giroa azaltzen dute Txillardegiren idazleek: «Oraingo euskalgintza eta Euskal Herriaren egoera ez da gaur sortua, urteetan mamitu da, eta, hori normala denez, gazte jendeak ez du ezagutzen, ez zaio tokatu-eta guri bezala bere haragian bizitzea. Horregatik, gaur interesgarri izan dakizkiekeenak bildu ditugu», azaldu du egileak.

Liburua osatzen duten testuak orduko ortografiarekin kaleratu ditu Elkarrek; «Kontuan harturik batasunaren premiaz dihardue-lagileak askotan, batasun be-

har horren erakusgarri bihurtzen dira artikuluetan sumatzen diren bizkuntzako zalantzak».

Euskaratuaren beharraz

Euskarari buruz lehen artikulua 1956an idatzi zuen Txillardegik, Ferrolen (Galizia) alferizaren garaietan. Garai hartan euskalgintza zertan zegoen ikusteko «baliagarria» da artikulua: «Alde batetik, garbizalekeria amorratua zegoen, bide hartatik ez gindoazen inora; bestetik, gramatika aldetik oso modan zegoen gauzak aldatzea». Orixez bere meza liburuan egindakoa adibide moduan jarri du: «Pluralgileak kendu zituen». Testuinguru horretan idatzitako artikulua dira Txillardegirenak. «Ideiak, ordea, Koldo Mitelenarenak ziren».

Egitaraua

Irailak 7, asteartea

19:30: Markos Zapianiek Jose Luis Alvarez Enparantzak 'Txillardegiri' ren 'Literatura eta pentsamenduzko ibilbidea' aztertuko du, Koldo Izagirrek aurkezturik.

Irailak 8, asteazkena

19:30: Emilio Lopez Adan 'Belta'-k 'Politikazko ibilbidea' hitzaldia emango du, Ramon Labaienek aurkezturik.

Irailak 9, osteguna

19:30: Joan Mari Torrealdai aurkezturik, 'Hizkuntza gaietako ibilbidea' hitzaldia egingo du Pilartxo Etxeberriak.

Ekitaldi guztiak Donostiako Udala Liburutegiko sotoan (San Jeronimo kalean) izango dira.

Euskaratuaren beharrez inguruko kezka eta proposamenak ere jaso ditu, Txillardegik hainbeste borrokatuak. Gaiagatik Euskaltzaindian dimisioa aurkeztu zueneko gutuna irakurri daiteke, *Euskaltzaindiko adiskide maiteok, agur!* izenekoak. «Izuriz, itxuraz, Euskaltzaindiak euskera biziaren zaindaria egon uste du, edo agertu nahi bederen. Izaitez eta obrarekin, behar zutenaren laurdenik ere ez du egiten, bide faltsuetan barrena abiatua delako; eta egia aurrez aurre eta zer nahi gerta dadin ere ikusi nahi ez duelako. Eta nik ez dut joko hortan segi nahi», idatzi zuen Txillardegik.

Branka-n euskara eta pentsamenduari buruzko plazaratutako hainbat artikulua ere badakartzala liburuak. Herrikidetzan eta gizarke trinkotasunean hizkuntzak duen pisua, euskara folklorikoaren kontrako idatzia, euskararen borroka politikoko beharra, edo Suomiren inguruko zenbait jakintzagarri plazaratu zituen 1967an: «Suomiren kasua bi aldetatik ziztaizun interesgarri: alde batetik, nazio askapenerako eta sozial-iperalismoaren alderditik begiaturik (Leninen iraultzaren garaian lortu baitzuen Suomik bere independentzia), Ezker Abertzalea erne ibiltzera bultzatu nahi zuen». Eta, bestetik, suomiera batuaren sorrera eta gorabeherak azaltzen ditu liburua.

Frantsesez idatzirik artikulua «zientifiko samarrak» dira. Sorbonan lizentziaturia egin zuenekoak. Substratu euskaldunaren inguruan fonologia mailako oharrik bildu zituen.

Azken artikulua, *Euskalkien fonetika eta Euskaratuaren izenakoa*, 1983koa da. Bartzelonako Autonomoan Filologia Doktoregoa lortu zuenekoak.